


berria

Asteartea
2007ko otsailaren 27a

Laurehun urte inguruko olibondoak galtzeko arriskuan daude Ablitasen, lur elkarretaratzea dela eta. ANAIA ULAN (1) / ZUHAITZ ZAHARREN LAGUNEN ELKARTEA


Olibondoak, galbidean

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Ablitasen (Nafarroa) egin behar den lur elkarretaratzearen ondorioz, laurehun urteko ehunka olibondo erremediorik gabe gal litezke laster, baldin eta Administrazioak esku hartzen ez badu. Lurrak batzeko lanen ondorioz, bide edo ubide berriak egin behar dira, eta ehunka olibondo tokiz aldatu edo saldu egingo dituzte bertako nekazariak. Nafarroako Gobernuaaren arauen arabera, lur eremu osoaren %1 baino ez dute, legez, bere horretan utzi behar.

Arazo larria dela salatu du Zuhaitz Zaharren Lagunen Elkarteak, olibadiaz besteak beste inguruko baso ba-

Euskal Herriko olibondo eremurik zabalenetakoa, Ablitaskoa, gal litekeela ohartarazi du Zuhaitz Zaharren Lagunen Elkarteak.



Ablitasko olibak. ANAIA ULAN (1) / ZUHAITZ ZAHARREN LAGUNEN ELKARTEA

karra delako. «Ablitasen 300 mm euri baino gutxiago egiten du urtean», azaldu du Ana Blancok, elkarteak, «eta olibondoak kentzen badituzte, ingurua basamortu lurralde bilhurtuko da».

NEKAZARIEN ARRAZOIAK. Lur elkarretaratzearen ondorioz, muga egiten duten zuhaitzak, berez, kendu egin behariko dituzte, eta jabeago aldatuta, ekoizpena ere aldatu egingo dela aurreikus daiteke. Inguruko nekazariak arazoaren jakitum direla esan du Blancok, baina olibondoak eskatzen duten lanak ez duela merezi uste dute haiek. «Seme alabek ez dute lan hori hartu nahi, eta bertako olioari jatorri izena edo ematen ez baldin badiole edo diru laguntzak jasotzen ez badituzte, galdu egingo dira».

Egoera paradoxikoa da, gainera. Laurehun urte inguruko olibondoak saltzen diren bitartean, hainbat nekazari zuhaitz berriak landatzeko asmoa dute. Horren ondorioz, bertako landare motak —acebuchal, empeltre...— galdu egingo dira. «Arazoa da zuhaitz hauena, Administrazioarentzat, nekazaritza eremua dela, ez besterik», kezu da Blanco. «Baina hori baino askoz gehiago da. Gure arbasoengandik datorren ondarea dira, animalia askorentzako bizitzakia, eta bioaniztasuna ere hai».

Ablitasen, esaterako, usapalarentzako eta birigarroarentzako babesak dira olibondoak, eta baita muxararentzat eta gerri-txoriarentzat ere.

Bestalde, erromatar garaietatik datorren tradizioa. Ardoarekin batera, inguruko kulturarekin oso lotua egon den oliqaren ekoizpena.

Bertako nekazarien artean, lur elkarretaratzearen aldeko iritzia nagusi da, Blancok azaldu duenez, nekazaritza ekoizpenari eusteko ia modu bakarra delako, baina kezka ere antzeman dute elkar artekoak. «Halako malenkoniak hitz egin ziguten olibondoei buruz. Antzinatean hitz egin ziguten, eta belaualdi askoren lanaz eta ahaleginaz. Olioan etxean bertan, ongari kimikorik gabe, ekoizteko ohituraz».

Horren ordez, sail ureztatua jarriko dituzte. Artoa edo. Gero saldu egingo duten tuzta ekoizteko.